

KONTSUMO DATUAK

COVID-19aren ondoriozko konfinamendua dela eta, ezin izan ditugu 2020ko lehen hiruhilekoko kontsumo datuak osatu eta bildu. Espero dugu hurrengo buletinean eman ahal izatea urtearen lehen erdiko datu guztiak.

COVID-19A ETA GURE PLANETA

Koronabirusaren pandemiari eusteko asmoz Europako eta munduko zenbait gune gelditzen ari diren heinean, behera egiten ari dira kutsadura mailak. Herrialde batzuetan agindutako konfinamendua eragin kaltegarriak izaten ari da ekonomian eta herritar askoren bizi ohituretan. Baina, ironikoa bada ere, bidesari hori ordaintzeari esker, planetak hobeto arnasten du.

Hona hemen COVID-19a ingurumenean izaten ari den ondorioekin lotutako zenbait albiste interesgarri:

- Koronabirusaren ondoriozko itxialdia benetan ari al da planetari laguntzen?

<https://www.youtube.com/watch?v=jdiQQjgiKps>

- Aireko kutsadura nabarmen ari da murrizten aste hauetan. Europako Espazio Agentziaren irudi hauetan ikus daiteke NO2ak zer-nolako bilakaera izan duen Txinan eta Italian:

Txina: <https://www.youtube.com/watch?v=6DWBhp-oKOI>

Italia: <https://www.youtube.com/watch?v=ARpxtAKsORw>

- 30 urte baino gehiago dira ez zela Himalaia ikusten Indiatik:


<https://cnnespanol.cnn.com/2020/04/09/el-himalaya-puede-verse-desde-la-india-por-primera-vez-en-decadas-a-medida-que-el-confinamiento-reduce-la-contaminacion/>

- Konfinamenduaren ondorioz, animalia basatiak ikusten hasi gara hirietan:

<https://es.euronews.com/2020/03/31/animales-salvajes-aprovechan-la-cuarentena-para-reconquistar-las-ciudades>

- Bilbok kutsadura erdira jaitea lortzen du trafikoak %69 behera egitearekin:

<https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2020/04/21/bilbao-reduce-contaminacion-mitad-bajar/1032981.html>



Argi dago gizakiok rol erabakigarria dugula pandemia honetan. **Habitat naturalak suntsitzearen, biodibertsitatea murriztearen eta ekosistemak hondatzearen ondorioz, birusak zabalduta egiten dira.** Horixe berresten du Australiako eta Estatu Batuetako zenbait zientzialariek egin berri duten azterlan sakon batek.

Hemen irakur dezakezu albistea:

<https://www.dw.com/es/qu%C3%A9-relaci%C3%B3n-tienen-la-pandemia-de-coronavirus-y-la-destrucci%C3%B3n-de-la-flora-y-la-fauna/a-53125129>

Eta etorkizunean, zer? Neurri egokiak hartu ezean, epe laburrera gertatzen ari diren ondorio horiek guztiak anekdota bat baino ez dira izango. Azken batean, klima larrialdiak bere horretan jarraitzen du:

-https://www.eldiario.es/norte/vientodelnorte/Covid-19-contaminacion-ambiental_6_1016708337.html

-<https://www.sostenibilidad.com/cambio-climatico/coronavirus-puede-ensenarnos-algo-para-combatir-el-cambio-climatico>

Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es

BERRAKTIBATU+ ETXETIK. EMAN IZENA!



Ez ezazu pentsa konfinamenduak irauten duen bitartean ezer egin ezin duzunik. Esaterako, izena eman dezakezu BerrAktibatu+ programan. Programa horretan zure eguneroko jardueretarako zenbait proposamen erraz egingo dizkizute, egunero-egunero ingurumenean duzun inpaktua murrizteko. Etxean ordu asko igarotzen ari gara; beraz, une ezin hobea da ohitura berriak hartze-ko eta, hala, ingurumenean dugun inpaktua murrizteko eta, are gehiago, hurrengo fakturretan aurrezteko.

Dagoeneko UPV/EHUREN unibertsitate komunitateko 1.500 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte programaren aurreko edizioetan, eta, hala, beren ingurumen inpaktua

murriztu eta dirua aurreztu dute.

Besteak beste, hauek ikasiko dituzu:

- Badakizu dutxan minutu bat gutxiago igarotzen baduzu 12 litro aurreztuko dituzula? Familia oso batek egunean edaten duen ura baino gehiago da.

- Gailu elektroniko guztiak deskonektatu beharrean stand-by egoeran uzten badituzu, zure elektrizitate gastua 50-100 euro handiagoa izango da urte osoan

- Jaten duzun haragi kopurua % 50era gutxitzen baduzu, haragi horren ekoizpenetik datozen CO2 emisioak asko murriztuko dira (urtean ia 4 tona gutxiago).

Horiek guztiak eta gauza gehiago ikasiko dituzu **online programa** honen bidez.

Gainera, graduako ikasleek **hautazko kredituak** eskatu ahal izango dituzue programan parte hartzeagatik.

Informazio gehiago eskuratzeko eta izena emateko:

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/zuk-egiten-duzu-aldea-berraktibatu>



HITZALDIA: ITURRIKO URA ALA BOTILAKOA?

Martxoaren 9an, **Ibai Ekologiako doktore eta UPV/EHUko irakasle Joserra Díezek** hitzaldi bat eman zuen gure ikastegiko auditorioan.

Joserrak bertaratuei azaldu zien zer diren uraren zikloa eta uraren hiri zikloa. Azpimaratu zuen garrantzitsua dela jakitea zenbat ur dugun, nondik datorren eta zenbat kontsumitzen dugun; alegia, garrantzitsua dela uraren kultura izatea, kontsumitzaile gisa. Horrez gain, gure etxeetako uraren faktura aztertu zuen, bertaratuek hobeto ulertzeko. Azkenik, botilako uraren ordez iturriko ura edateak dituen onurei buruz hitz egin zuen; izan ere, kalitate bikaineko ura dugu.

Hitzaldi hori **BerrAktibatu + Unibertsitateak** proiektuan sartzen da, zeinetan Fakultatea bigarren urtez jarraian ari baita parte hartzen.

ZURE BOTILA BETETZEKO ITURRI BERRIAK

Fakultateak iturriko uraren kontsumoa sustatu nahi du. Hori dela eta, iturriak jarri ditugu ikastegiko komun batzuetan. Iturri altuago horiei esker, botilak errazago bete daitezke. Lehen solairuan jarri ditugu iturriak, aurrez aurreko eskola gehienak bertan ematen baitira; zehazki, leku hauetan daude:

- Idazkaritzaren ondoan, plataformatik sartzeko atearen aldamenean.
- Berritutako hall-eko komunetan

Orain, leku horietan botila arazorik gabe bete dezakezu. Edan iturriko ura!



Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es